

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4836

1653/2022 EBAZPENA, urriaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, uztailaren 28ko 1408/2022 Ebazpena aldatzeko dena. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Goi Mailako Tituluduna-Letradua kategorian (Letradua eta Goi Mailako Teknikari Juridikoa lanpostu funtzionala) lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 28ko 1408/2022 Ebazpena aldatzea, Goi Mailako Tituluduna-Letradua kategorian (Letradua eta Goi Mailako Teknikari Juridikoa lanpostu funtzionala), kategoriako epaimahaikidearen osaerari dago-kionean, horrela:

a) Virginia Pastora Miron andrearen izendapena lehenengoren epaimahaikide titular gisa ezeztatzea.

b) Javier Arispe Ruiz de Gauna jaunaren izendapena lehenengo epaimahaikide ordezkoko gisa izendatzea.

c) Javier Arispe Ruiz de Gauna jaunaren izendapena lehenengoren epaimahaikide titular gisa ezeztatzea.

d) Fernando Guerricabeitia Ortuzar jaunaren izendapena lehenengo epaimahaikide ordezkoko gisa izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitara dadin agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera; hots, oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituen horretan ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 20a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.